

• **Michel Kheiti** Zinemagilea

«Zinemaz, hots, XXI. mendeko hizkuntzaz jabetu behar da»

80.eko hamarkadan, zinema militante palestinar baten esperientziak egiten zirelarik, zinemaren hizkuntza eguneroko bizia irudikatzeko erabiltzen hasi zen Michel Khleifi palestinarra. Egin dituen lan adierazgarrien artean 1987an ekoiztu *Galileako ezteiak* dago. 40 bat sari jaso zituen, besteak beste. Filmak egiteaz gain, Bruselako unibertsitatean zinema saileko irakasle da. Belgikan bizi da hain zuzen, han ikasketak eraman zituenetik. Berrikitan handik itzulia dela harrapatu genuen, etsitua baina irria ahoan.

• **Zer irudikatzen du Palestinak zuretzat?** Palestinarekin familiarekin ukan daitekeen harremana daukat. Han naizelarik instintoarekin aintzinatzen naiz. Urrundu behar dut atzerapen pixka bat hartzeko, analizatzeko gaitasuna izateko. Dena dela, Palestina nire gaia da. Han ditut egiten filma guziak. Nire proiektu zinematografikoa palestinar esperientzia humanoan oinarritzen da. Horregaitik naiz jin zinemara. Badakizu... Palestinan ez dugu bizi normalik, erbesteaz gain, Palestinan berean, palestinar oro langile imigratu bat bilakatua da bere lurretan. Horren antzinean beharrezkoa da gizarte bat berriz eraiki-

tzea, errealitatea eta irudimenaren artean. Hori naiz filmatzen entseatzzen. Palestinarren baitan dagoen memoria, tradizioa eta mugimendu psikologikoen funtsa atzematen ahal egintzen naiz. Hortik abiatu eta istorio bat idazten dut.

• **Israelgo palestinar gatazka komunikabideek etengabea aipatzeak eragin bat ote du zure lanean? Barenko ikuspegi bat hedatzeko gogoak ematen ote du?** Bai. Dominatuak, zapalduak eta kolonizatuak dauden populazio guzietan inposatua zaien indar harremanen mundu batekoak gara. Agintzen dutenek beren errealitatearen bertsioa ematen dute, komunikabideek barne. Eta guk, parean, erresistentzia egiten dugu. Nire herria terrotisten herri bat dela diote. Hori injustizia bat da. Eta beraz, herritar horien alde jartzen naiz. Gu palestinarrok ez gara bortitzak sortu. Alderantziz, gizarte biziki goxo bat gara. Baina... Olerkari palestinar batek dio: «Borreroaren kolpeak nire betileen gainean ibiltzen irakatsi dit». Ni, Europan naizeno hiritar oso bat naiz. Palestinara sartzen naizelarik, ez naiz ezer. Edozein israeldar soldadu tipik umiliatzen nau.

• **Zure zinema politikoa da?** Zineasta politikoa naiz. Asumitzen dut. Hiritarra naiz. Gertakari zenbaitzuen antzinean erantzunkizunak hartu behar dira.

• **Arteak lagun dezake gatazkan murgiltzen?** Dударik gabe. Zinema XXI. mendeko hizkuntza da eta beraz beharrezkoa da horretaz jabetzea. Nazionalismoa, edozein ixte gaintzen ditu arteak. Nik ez dut ezer isralendarren aurka. Konziente naiz XIX. mendeko ideologia faxista batek dominatzen dituela. Humanok gure anaiak dira. Nire azken lana israeldar batekin egina dut. Nahitara. Ekintza politikoa da.

• **Palestinaren zinema hurbiletik alarunetik beti palestinez mintzo da, eta horri loturik gatazkaz. Ezin bestekoa da?** Zu Baionan zaude eta haur bat bidea trebeskatzen filmatzen duzu. Nahi ala ez, bi hizkuntza elkarren ondoan bizi direla agertuko da, tentsio guñe bat dela, ederra dela ere, eta bar.

Palestina berdin da, nahi ala ez ingurumena agertuko da. Eta Palestinan filmatzen badut, Palestinan naitzela erakutsi nahi dut. Bestela, filmak ez luke nortasunik.

ditu Michel Khleifik. Oro har, elkartasun sare bati esker bururatzen dira hango ekoizpenak. Europako diruarekin ala elkarrekin eman diruarekin antzinatzen dira.

Banatze orduan ere, gerlak ekarri zailtasunek segitzen dute. Filmak Europako jaialdietan erakutsiak baldin badira, denbora berean Palestinan gauzak ez dira hain errazak. Halere, entseguak eginak dira. Rashid Masharawi filmegileak zinema mugikor bat eginarazi du, besteak beste. Palestinako telebista nazionala bideoak bere katetik hedatzen saiatzen da. Baina honen egoitza deseginduta. Antena soil batzuek gelditzen dira gaur egun.

Zinemagintzan ahal dena egiten ari direla, haien kalitatearen ezagupena gero eta zabalagoa bilakatzen ari da. Hala, Elia Suleimanen *Intervention divine* azken fikziozko film luzeak Cannes zinema jaialdian epaimahaiaren saria eskuratu zuen. Hango egileebn lanak, Europako zinema areto askotan banatu dira. Une honetan Hany-Abu-Assaden *Ranaren ezkontza* banatu da.

Ahaleginak egin arren, politikak artea harrapatzen du. Alabaina, Elia Suleimanen azken lana, *Intervention Divine*, Oscar sarietako aurkeztu nahi izan dute, ingelesak ez diren film sailean. Baina Hollywoodeko akademiak ez zuen onartu, Palestina ez zelako estatu ofizial bat.

Palestinako zinemagintza hamar filmetan

Galileako ezteiak (Michel Khleifi, 1987). Canneseko jaialdian nazioarteko kritikoen saria eskuratu zuen baita Donostian Urrezko Maskorra. Palestinaren zinemagintzan urrats berri bat irudikatzen du. Zinema palestinarren ezagutzarako bere lana garrantzitsua izan da.

Hanane Ashrawi (Mai Masri, 1995). Dokumental honek Hanane Ashawi politika munduko eragileak segitzen du. Filmegile palestinarren artean emazte frankko atzematen dira.

Stress (Rachid Masharawi, 1998). Gazan sortua den filmegileak egindako filma palestinar eta israeldarren arteko lehen koprodukzio esperientzia izan zen. Palestinaren egoera haien begien ixiltasunetatik ulertaraztera gonbidatzen du egileak.

Bigarren milurteko bost film labur (2000). Bost filmegile palestinar, artean Elia Suleiman zein Rashid Macharwi bildu ziren palestinarren bizi konplexua erakusteko gisan. Lan bereziak eta berritzaileak izan ziren.

Prostituta baten egunkaria (Tawfik Abu-Wael, 2001). Dokumental honek israeldar hiritartasuna daukaten palestinarren baitako paradoxa eta ez egokitasuna aipatzen du.

Bizi nahi dugu (Ghada Terawi, 2001) *Bizi nahi dugu* palestinarren beren ikuspegia emateko nahikeria erakusten du.

News Time (Azza al-Hassan, 2001) «Telebistak bertako errealitatea desformatzen lagundu du», dio Michket Krifa komisarioak. Azza al-Hassanek *News Time* dokumentalean informazio gehiegikeria salatzen du.

Intervention divine (Elia Suleiman, 2001) Biztanleen eguneroko bizian oinarritzen da Elia Suleiman. Palestina eta Israelen artean biztanleek bizi zailari kutsu absurdoa gehitu dio egileak.

Ahaztearen hoberena (Najwa Najjar, 2001). 1948an Jaffan bizi zen burgesen bizi lasaiaren irudi zaharrak muntatu ditu. Gizarte txukun bateko irudiak dira hauek, egunerokotasunaren bazterrean.

Duintasunean bizi (Hanna Musleh Check, 2002) Kontrol guneetan egunero gertatzen diren bizi apaltzeak salatzen ditu dokumentalak.

• BEGI ERTZETIK

3

[H] otzik egiten ez duen egunik ez da pasatzen. Goizetan lanera abiatzean, karrikak elurra ematen duen azal zuri mehe batez estaliak dira. Alabaina, elur ametsa salbu, arima bizirik ez dut gurutzatzen, beharbada gaua kanpoan iragan duen eskale bat, Kronenbourg kaxa karroindua eskua artean datxikala daldaraka. Belarriak kasik lurrean herrestan dauzkan zakur etsi batek segitzen nau noiztenka eta haren hatsanka ketsua nabari dezaket ene ondotik. Urrun

dadintzat ez diot ostikorik ematen,

bestela animalien
adiskideak diren
irakurleak haserretuko

Little
Baiona XI
direlakoan. Gauean,
Segi erakundeak
afixatze kanpaina berria

eraman du, Sarkozy legea
salatzen duen paperaren atzealdeko

eratxigailuak doidoia izoztua lekuko. Eta matxinatu behar da oraino, baina ez dakit jada zeren kontra.

Norbait elekatzera jin zait herenegun, laburbilduz faxismoaren aurka euskal demokraten batasuna osatzekoa zela azpimarratuz, barne-demokrazia mailan lekzioneak egitea zilegi balitzaigu bezala. Ikara hotzezko irri gogoa nuen. Solaskidea anakronikoa iruditzen zitzaidan, duela hogeita hamar urteko lema, azterketak eta ekin-moldeak ezpainetan. Ala ni nintzen arras anakronikoa, hainbatetan ukronikoa izatearen bortxaz. Elkarrekin bat muntatzeko xedea zuten gure interesen zaintzeko, euskaldunenak, preso eta errefuxiatuenak, hots, itzalpean mamu itsua bezala ekiten duen erakunde armatuarenak hondar finean. Gure borroka guztiak, ahalkeaz agertzen nuen ene pentsamendu koldarraren afera zelakoan ez nion deus erran, geure bihotz urmeldu kiratsetan hantzen dugun mamu menpera eta geldiaraz ezin horren justifikatzeko plantatzen zirela sinestera heldua nintzen. Bere proposamenari ezezkoa eman nion. Uste dut desesperatu dudala eta izena aldatzea komeniko litzaidakeela.

Ez zuen irrik eta eni ere irri egiteko gogoa kendu zidan neure oinarritzko inozentzia trufakoiari mugak jartzera behartuz. Alabaina, ez gara inozenteak, etsaiak zenbatetaraino zapaltzen gaituen badakigu eta erraten dugu ahoan bilorik gabe. Eta geure buruei inozentzia apurra zilegitzen baldin bagenie, nion nerener, hiltzera eroaten gaituzten barneko mamuak hazten aritzeko partez, gure herria berriz amesten eta asmatzen hastearren.

Eschyle hadi manatu zidan subliminalki solaskideak.